

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure publiko posibleen artean, historiarekiko interesa izatea eta esperientzia berri bat ikasteko eta bizitzeko gogoia izatea da benetan behar duguna.

Oraingoan hainbat faktore aztertuko ditugu gure zerbitzuaren merkatu segmentazioa gauzatzea eta argi izatea eragingo dutenak:

Eskaintzen ditugun ibilbideak **kultura eta historia maitatzen dutenentzat** zuzenduta daude. Era berean, askotariko prezioak ditugu, era guztietako poltsikoek erabiltzeko modukoa. Horrela, gazteek, normalean erosteko ahalmen txikiagoa dutenek, esperientzia hori bizitzeko aukera izango dute. Honako hau da prezioen aproximazioa, aniztasun handia aurkezten duena, hain errenta handia ez duten pertsonentzat ere aukera hau eskaintzeko nahian.

- **Prezioen aproximazioa:**

1. Ibilbidea	800 - 900 euro
2. Ibilbidea	2300 - 2500 euro
3. Ibilbidea	6500 - 7000 euro
4. Ibilbidea	1700 - 2000 euro
5. Ibilbidea	900 - 1100 euro

(...) → Kolore honekin bidai ekonomikoenak.


(...) → Kolore honekin luxuzko bidaia

ERLIJIOA ETA GIZARTEA

Ikerketa Soziologikoen Zentroaren arabera, Espainiako biztanleen % 59.8 katoliko gisa definitu zen 2020an. Hala ere, ehuneko handi horretako askok ez dira praktikatzaileak eta elizara bakarrik egun zehatzetan joaten dira. Nahiz eta askok praktikatzaileak ez izan biztanleriaren erdia erlijioarekiko interesa du edo oinarritzko kontzeptuak ezagutzen ditu. Horretarako, gure enpresaren bidai bat **kristauei** zuzenduta dago, bai erlijioarekiko interesa dutenentzat bai **erlijiosoak ez direnentzat baina hala ere ikasi nahi dute**. Prestatutako bidaiaren bidez, kristautasunaren sorkuntza eta garapenari buruz ikasiko dute, Maria eta Jose egindako bidai berdina egiten. Horrela kristautasunaren lehen aztarnak ulertzea posiblea izango da eta aldi berean erlijioa beste ikuspuntutik ulertzea.

BIZTANLERIAREN ZAHARKITZEA


Gazteen egoerari dagokionez, Espainia, Italia eta Alemaniarekin batera, Europako batez bestekoaren azpitik dago 2025ean, eta 15 urtetik beherako biztanleriaren ehuneko txikiena duten herrialdeen artean kokatzen da. Horregatik, EINen zenbait kalkuluren arabera, Espainiako biztanleria asko zahartuko da



Fuente: INE. Elaboración propia

datozen urteetan, eta erretiratuen kopuru handiagoa utziko digu, denbora libre gehiago baitute.

Erretirodun horiek prestakuntza-maila handiagoarekin iristen dira erretirora, eta beren kultura-maila altuagoa denez, horietara bideratuko gara, beren behar guztiak bidaie bidez asetzeko. Historiaren balioari buruz egin dugun inkestaren bidez egiaztatu ahal izan dugunez, populazio nagusiak dira historiak eskain dezakeen guztia ezagutzeko irrikarik handiena dutenak, gai baitira hainbeste denbora, baliabide edo gai horretan hainbeste interes ez duten gazteek baino gehiago baloratzeko.



Hau da kasu honetan erabilitako inkesta: <https://forms.gle/4hsWbjgMNWBqhVJ86>

Honetan argi ikusi dezakegun bezala da biztanleria zaharkituta historiaren benetako balioa edo hau ezagutzeko gura argi dutenak. Gazteenen artean iritzi banaketa handiagoa dagoela ikus dezakegu. Helduagoei dagokienez, argiago dute historiarekiko gustua eta interesa.


JAIOTZA TASA ETA FAMILIAK

Grafikoan ikus dezakegunez, urteetan zehar jaiotza-tasa jaisten ari da, eta hori ezin dugu ukatu. Jaiotza-tasaren beherakada izugarri hori eragin duten arrazoiak faktore ekonomiko eta sozialak dira. Gero eta familia gutxiago egon arren, badakigu badirela oraindik ere. Dakigunez, familiak askotarikoak dira: guraso bakarrekoak, familia ugariak... Beraz, bakoitzak bere egoera izango du. Familia bakoitzaren

ekonomia, egoera eta gustuak aldakorrak dira; beraz, familientzat bereziki diseinatutako ibilbideak ditugu. Ibilbide horiek Espaina barruan daude, beraz, prezioa txikiagoa izango da, eta hori ezin hobea da seme-alaba bat baino gehiago dituzten familientzat edo soilik aurrekontu murriztuentzat. Gainera, ibilbideak ere ez du lekualdatze handirik behar, esan bezala, ibilbide horiek herrialdetik irten gabe egiten baitira.

Ikusi ahal izan dugunez, publiko batzuetan beste batzuetan baino eragin handiago izateko ahalmena dugu, hala ere, nahiko merkatu zabalean egiten dugu lan eta ikusi ahal izan dugunez segmentazio txikia gauzatzea beharrezkoa izango da guztiok esperientziaz gozatu ahal izateko. Horretarako askotariko ibilbideak eskaintzen ditugu, historia merezi duen bezala interesatzen eta baloratzen duten ia pertsona guztiek gure esperientziaz goza dezaten.

Tasa bruta de natalidad. Valor



INE
Instituto Nacional de Estadística